



**Lanbide**

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA  
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

**OHIKO GALDERAK: ZERBITZU-EGINKIZUNEN SALBUESPENEZKO PROZESUA, LANBIDE-  
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ADMINISTRARI OROKORRAREN ETA ENPLEGURAKO  
ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUETARAKO**

1. Nola jaso dezaket zerbitzu-eginkizunen salbuespenezko prozesuaren berri?
2. Nola eskuratu dezaket informazioa?
3. Nola izapidetu behar dut nire eskaera?
4. Nola izapidetu dezaket nire eskaera, ezin banaiz intraneten sartu?
5. Nortzuk aurkez daitezke?
6. Zer beste baldintza bete behar dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-kontratuko langileek?
7. Nola sartzen naiz plazen monografietara?
8. Zer argudiatu behar dut?
9. Zer egiaztatu behar dut?
10. Nola eta noiz ezartzen dut eskatzen ditudan plazen lehentasun-ordena?
11. Nola antolatuko ditut plazak bi deialdietan parte hartzen badut?
12. Zer esan nahi du zerbitzu-eginkizunetan atzera egiteak, salbuespenezko prozesu honetan?
13. Zer ondorio izango ditu uko egiteak esleitutako lanpostuan ez sartzeagatik?

## 1. Nola jaso dezaket zerbitzu-eginkizunen salbuespenezko prozesuaren berri?

Informazioa helbide hauetan egongo da:

- Internet: [www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa](http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa)
- Intranet: Jakina/Enpleguaren ataria
- Intranet: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ataria

## 2.- Nola eskuratu dezaket informazioa?

**Jakinean** sartu behar duzu eta **Nabarmenduak atalera jo**. Bertan langile guztiek haxe kontsultatu ahalko dute:

- Prozesua arautzen duen ebazpena
- Eskaintako plazak
- Prozesuaren egoera
- Eskatu ez diren lanpostuen zerrenda (halakorik balego)
- Esleitu gabeko lanpostuen zerrenda

Halaber, **bai aplikazio horretatik bai Internetetik, prozesuko parte-hartzaileek** eskaerak egin ahalko dituzte, eta gainera:

- Eskabideak kontsultatu
- Atzera egin
- Plazak hurrenkeraren arabera ordenatu
- Merituen balorazioa kontsultatu
- Behin-behineko esleipenen zerrenda kontsultatu
- Behin betiko esleipenen zerrenda kontsultatu

### 3.- Nola izapidetu dezaket nire eskaera?

Eskabideak elektronikoki izapidetu behar dituzu, hurrengo kanalen bidez:

Intranet: Enpleguaren ataria/Jakina.

Intranet: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ataria

Internet: [www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa](http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa)

Eskaera egon ondoren, interesdunak eskaeraren **jaso izanaren** agiria inprimatu ahalko du. Bertan adieraziko dira: alegatu dituen datu guztiak, eskatutako plazak (eta hurrenkera), gehi eskaeraren egoera.

**GARRANTZITSUA: Eskaerak onartzeko ezinbestekoa da urrats guztiak behar bezala egitea eta eskaera ITXITA egoeran egotea. Beraz, egin gabekotzat hartuko dira egoera hauetan dauden eskaerak : IZAPIDETZEN ARI DA edo BALIOGABETUTA.**

### 4.- Nola izapidetu dezaket nire eskaera, ezin banaiz intraneten sartu?

Ezin bazara Intraneten sartu, eskaera interneten bidez egin ahalko duzu. Baina, horretarako, PIN bat eskatu beharko duzu helbide honetan:

[pin.masivas@lanbide.eus](mailto:pin.masivas@lanbide.eus)

Goiko helbidera mezu elektronikoki bat bidali beharko duzu, **2023ko martxoaren 6a baino lehen**. Mezuko gaian haxe idatzi behar duzu: "KOMISIO MASIBOETARAKO PINa". Eta bertan datu hauek zehaztu behar dituzu:

- izen-abizenak,
- IFZ
- eta helbide elektronikoa ( PINa bidaltzeko).

Aipatu data baino lehen posta bidali ezean, gainerako bideetatik egin beharko duzu eskaera.

Hala ere, eskabidea 39/2015 Legeak aipaturiko bulegoetan ere aurkeztu ahalko da (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, 16.4 artikulua). Eskabideak datu hauek jaso beharko ditu:

- a) Datu pertsonalak.
- b) Harremanetarako datuak: posta-helbidea, telefono mugikorra eta helbide elektronikoki partikularra.
- c) Enplegu-harremana.
- d) Kidegoa eta izendapen-eskala.
- e) Egiatztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- f) Zein deialditan parte hartu nahi duzun (Administrari Orokorra eta/edo Enplegu eta Enplegurako Prestakuntzako teknikaria).
- g) Eskatutako plazen hurrenkera.

- h) Alegatzen dituzun merezimenduak eta betekizunak. Alegatu beharko dituzu baloratzea nahi dituzun betekizun eta merezimendu guztiak. Soilik prozedura honen ondorioetarako, alegatutzat hartuko dira langileen erregistroan jasotako merezimendu guztiak. Eta, beraz, horiek ofizioz baloratuko dira. Dena den, beste administrazio publikoetan izandako esperientzia aparte alegatu beharko da beti ( ez baita ofizioz egingo).
- i) Langileen erregistroan jasota ez dauden eta akreditatu nahi dituzun merezimenduak eta betekizunak, aurkezteko epean. Horrekin batera atxikitu beharko da dagokion dokumentazioa.

## **5.- Nortzuk aurkez daitezke?**

Zerbitzu-eginkizunen prozedura honetan honako kolektibo hauek parte hartu ahal izango dute, araudiaren arabera:

- Karrerako funtzionarioek (deitutako lanpostua irekita dagoen edozein eskalatan izendatutakoek)
- Karrerako funtzionarioek (Azpitalde bereko edozein eskalatan edo deitutako lanpostua baino beheragoko hurrengo talde edo azpitaldeko edozein eskalatan izendatuak izan badira) eta beharrezko titulazioa badute.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-kontratuko langileek (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoko langileen alderdi espezifikoak arautzen dituen EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileen mahai sektorialaren akordioa onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2015eko urriaren 13ko Erabakian ezarritako baldintzetan).
- Bitarteko funtzionarioek (deitutako lanpostua irekita dagoen edozein eskalatan izendatutakoek)

## **6.- Zer beste baldintza bete behar dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-kontratuko langileek?**

Lan-kontratuko langileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboaren aplikazio-eremuan egon beharko dute, prozesuak hasi aurretik.

Era berean, aldi baterako lan-kontratuko langileek edo epai bidezko lan-kontratu mugagabeko langileek uko egin beharko diote, esleipena egin aurretik, Administrazioarekin zuten lan-harreman juridikoari, eta bitarteko funtzionario izendatuko dira deitutako lanpostua aldi baterako betetzeko.

## 7.- Nola sartzen naiz plazen monografietara?

Lanpostu guztien monografiak eskura dituzu enpleguaren atarian. Gainera, aplikazioaren bidez, prozesuko plazen monografiak ere eskura daitezke, lanpostuen kontsultan.

## 8.- Zer alegatu behar dut?

Langileen erregistroan jasotako betekizunak eta merezimenduak ofizios sartuko dira telematikoki izapidetzen den eskabidean. Eta ofizios baloratuko dira.

Izapidetutako eskabide guztietan Langileen Erregistroan jasota ez dauden merezimenduak alegatu beharko dira. **Eskaera Intranet/Internet bidez egiten baduzu, zure langileen erregistroan dauden datuen berri emango zaizu. Informazio horretan agertzen ez den guztia nahitaez alegatu beharko da.**

**Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak beti alegatu beharko dira.**

Eskabidea paperean egiten baduzu, erregistro horretako datuak ezagutzeko, aldezturik XL-Neten identifikatutako enpleguaren ataritik [datu pertsonaletara](#) sar zaitezke. Bide horretatik sartzerik ez baduzu, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin harremanetan jar zaitezke, zure administrazio-historialaren kopia bat eman diezazun.

## 9.- Zer egiaztatu behar dut?

**Dagokion agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzu Langileen erregistroan agertzen ez diren eta zure eskabidean alegatu dituzun merezimendu guztiak, ESKAERA EGITEKO EPEA IREKITA DAGOEN BITARTEAN, Lanbideren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan.**

## 10.- Nola eta noiz ezartzen dut eskatzen ditudan plazen lehentasun-ordena edo hurrenkera?

**Zure eskaera egiteko unean bertan. Eskaeran hautatutako plazen zerrendan agertzen den ordenak berak lehentasun-hurrenkera zehaztuko du.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezingo da hurrenkera aldatu ( oinarrietan ezarritakoaren arabera).

## 11.- Bi deialdietan parte hartzen badut, nola antolatu behar ditut plazak?

Bi deialdietan parte hartzen duten **karrerako funtzionarioek eta lan-kontratuko langile finkoek** 3 eguneko epea izango dute hautatutako plazak ordenatzeko . Epe hori Zerbitzu Orokorretako zuzendariaren ebazpen bidez emango da, merezimenduak baloratu aurretik.

Arestian aipatu langileek, bi deialdietako plazak hautatu badituzte, plaza horiek hurrenkera zehatz batez ordenatu beharko dituzte. Ordenatze horretan bi deialdietako plazak tartekatuta ahalko dituzte; baina EZIN izango da aldatu eskabide bakoitzean ezarritako plazen ordena. Lan hori aplikazioen bidez egin beharko da.

**Eskaera izapidetzen ez bada ezarritako epe barrua, plazak ofizioz ordenatuko dira. Ordenatze horretan, lehentasuna hartuko dute Enpleguko eta Enplegurako Prestakuntzako teknikariaren plazak (Administrari orokorraren plazen gainetik).**

## **12.- Ze ondorio ditu zerbitzu-eginkizunetan atzera egiteak ,salbuespenezko prozesu honetan?**

Atzera egiteak esan nahi du prozesuan ez jarraitzeko eskubidea erabiltzea

Edozein unetan egin ahalko da atzera, behin betiko esleipena egin baino lehen. Atzera egiteko azken epea hauxe izango da: esleipenen behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko ezarriko diren 5 egunetan.

**Atzera egiteak eragingo dio aipatzen den eskaera osoari.**

**Aipatu data baino lehen atzera egiten ez duten langileek (behin betiko esleipendunak badira) esleitutako lanpostuaz jabetu beharko dute. Izan ere, lanpostuan ez sartzea uko egitetzat hartuko da. Eta, beraz, ondorio guztiak izango ditu.**

**Ildo horretan, adierazi behar da langileak ezin diola esleitutako plazari uko egin (baldin eta ezarritako epean atzera egin ez badu). Irizpide hori hauei ere aplikatuko zaie: behin betiko esleipenean plaza lortu dutenei (nahiz eta behin-behineko esleipenean, esleipendun suertatu ez). Kasu horretan, epe barruan lanpostuan atzera egin ez badute, ezin izango dute geroago uko egin. Eta, beraz, lanpostuaz jabetu beharko dute.**

## **13. Zer ondorio izango ditu uko egiteak esleitutako lanpostuan ez sartzeagatik?**

**Karrerako funtzionarioek eta lan-kontratuko langile finkoek**, esleitutako plazan sartzen ez badira, 12 hilabete itxaron beharko dute deialdi berrietan parte hartzeko. Gainera, parte hartzen duten zerbitzu-eginkizunetako edo aldi baterako mugikortasuneko lanposturako atxikipena galduko dute. Eta, azkenik, beren titulartasuneko lanpostura itzuli beharko dute.

**Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako lan-kontratuko langileek** izendapen-lanpostua galduko dute. Eta 12 hilabetez "hautaezin" egoeran egongo dira, osatzen dituzten lan-poltsa guztietan.